

## 3.2 GAIAREN LANKETA

### > Elikagaiak: errezeta liburua



#### - Elikagaien bikote-jolasa

##### Helburuak

- Elikagaien hiztegia ikastea.
- Elikagaien hiztegia erabiltzea.

##### Prozedura

- Jolas honen helburua elikagaien irudiak eta horiei dagozkien hitzak aurkitzea da; irudi-hitza elkarketa egitea, alegia.
- Pausuak:
  - Fitxa guztiak mahai gainean jarri ahuspez.
  - Ume guztiak fitxen inguruan jarri.
  - Ume batek fitxa bat jasoko du eta izendatu (irudian dagoena zer den esan edo idatzita dagoen hitza irakurri); beste fitxa bat jaso eta izendatu. Irudia eta dagokion hitza badira, gorde egingo ditu, bikotea lortu du-eta. Kasu honetan, berriro bere txanda izango da eta beste bi irudi jasoko ditu.
  - Bikotea lortu ez badu, berriro utziko ditu mahai gainean lehen zeuden tokian, eta, hurrengo umearen txanda izango da.
  - Bikote gehien lortzen dituen umea izango da irabazlea.